

## EDITORIALA

Hariigarria gertatuko zaio bati baino gehiagori, Elhuyar Taldeak, duela zortzi bat urtez geroztik euskal kulturaren lanean diharduen arren, orain arte legezko egiturarik ez duela izan esaten badiogu.

Hasiera hasieran ez zen hain harritzekoa, horretarako ere eragozpenak zeudelako noski.

Geroztik, gure bilkuretan mila bider aipatu izan den arazoa da hau, baina, hortxe egon gara behar zen urratsa eman gabe.

Ez da haatik utzikeria izan luzamenduaren funtsa.

Batetik, premiak ez gaitu gehiegi estutu eta bestetik, izan ditu bere abantailak formaltasunaren mugarik ez izateak.

Esan nahi bait da, taldearen irekitasunak aukera eman diola gogoan izan duen edonori gure artean etorri eta taldearen giroa eta bízitza barnetik ezagutzeko. Interesgarri aurkitu duena gero eta gehiago txertatu da. Beste zenbaitek nahiago izan du uztea. Bakoitzak ahal izan duen eta nahi izan duen eran eta neurrian eskaini du bere lankidetzak.

Desegokitasunak ere baditu ordea batere egitura juridikorik gabe mundu honetan ibiltzeak.

Are gehiago,erakunde-bizitzaren normalizazioaren bidean abiatzen gutxienez ari garen mementu honetan.

Ez da egokia,ez beste erakundeekin harremanak izateko,ez taldearen barnean profesionaldu behar dutenen langile-egoera era egokian finkatzeko e.a.

Egunoroko harreman arruntak orain artekoak bezain irekiak izan daitezen nahi genuke,baina

etorkizunari begira xede sozial serio bat inposatu nahi genioke gure buruari eta horretarako egituratu egin dugu taldea.Hemendik aurrera,eta behar diren eskakizunak bete ondoren,Kultur Elkarte izango da Elhuyar.Aldizkariaren ale honekin batera jaso dituzuen Estatutoek taxutuko dute gure egoera.

Oinarri on bat izan daitekeela uste dugu gure eginkizunak eskatzen duen urrats hau eta lortu nahi genukeen status egonkor eta emankorragoa lortzeko.Hala biz.